

## **GUION LITÚRGICO**

### **CAMPAÑA DE LA PASTORAL SOCIOCARITATIVA 6 de abril de 2014**

**DOMINGO V DE CUARESMA / CICLO A  
Domingo de Lázaro**

#### **Entrada:**

Estamos a las puertas de la Semana Santa. Escucharemos en el evangelio la afirmación de Jesucristo como resurrección y vida. Esa es la fuente de nuestra esperanza definitiva. Si queremos sembrar esperanza, contagiar de esperanza este mundo tan difícil para mucha gente, tenemos que dar lo que tenemos de mejor en nuestro interior, es la motivación definitiva de unas vidas consagradas a las personas más necesitadas por ser las que peor lo están pasando y por defender su dignidad de personas como hijos de Dios. Este es el objetivo de la campaña de este año. Hoy nuestra Iglesia diocesana nos anima a mirar con ojos de verdadera misericordia, el trabajo de tantos, al servicio tantos, enfermos, encarcelados, pobres y víctimas de cualquier tipo, que como Iglesia amorosa acogen, escuchan y acompañan aportando su granito de arena a un futuro más feliz.

En la cuaresma vemos a Jesús como agua que mana hasta la vida eterna, como luz del mundo, como vida eterna. Ahora queremos dar el paso de la Pascua, pasar de la muerte a la vida, del dolor a la paz, de la desesperación a la esperanza. Que la celebración de este domingo sea para todos, un reto y un gozo, un canto de paz y alegría evangélica.

## Acto Penitencial

---

Reunidos ante la cruz de Jesucristo como fuente de verdadera esperanza, pedimos perdón por las veces que nos alejamos de su Pascua misericordiosa rezando juntos:

**Yo confieso ante Dios...**

Invoquemos a aquel que nos ama como hijos e hijas:

**Señor ten piedad / Cristo ten piedad / Señor ten piedad**

## Oración

---

**Te rogamos Padre, que tu gracia nos llene y nos fortalezca, para que vivamos siempre de aquel mismo amor que movió a tu Hijo a entregarse hasta la muerte por la liberación plena del mundo. Por nuestro Señor Jesucristo....**

## Lecturas

---

**Lecturas : 1ra. Ezequiel 3712-14 /Romanos 8, 8-11 / Juan 11,1-48**

Escuchamos hoy en las lecturas del día unas hermosas palabras de consolación. Dios nos acoge, nos acompaña y da su vida en Jesucristo, para que viviéramos en dignidad y asumamos a su vez, el compromiso de construir una sociedad de hermanos capaces de compartir lo mejor de nosotros mismos, nuestra capacidad de hacer el bien.

## **Sugerencia para la homilía**

---

El ambiente litúrgico de hoy está centrado en la tercera catequesis bautismal (luz, agua, vida) con el evangelio de la resucitación de Lázaro, con la atención fijada en la resurrección de Jesucristo. Ya desde la primera lectura del Antiguo testamento se nos anuncia una esperanza segura: el profeta Ezequiel habla a los israelitas exiliados en Babilonia, desesperados como están, y los llama a la esperanza de una vida nueva traída por Dios mismo, descrita en un lenguaje de resurrección que evoca la narración evangélica posterior: “*yo mismo abriré vuestros sepulcros y os haré salir...os infundiré mi espíritu y viviréis*”.

El relato de Lázaro en el evangelio de hoy, como los de anteriores domingos, la samaritana y el ciego de nacimiento son símbolos perfectos de nuestra humanidad débil, sometida a la muerte. En la exhortación del Papa Francisco *Evangelii Gaudium* se nos recuerda desde el comienzo esta condición de fragilidad concretada a las circunstancias culturales de hoy día: “*el gran riesgo del mundo actual, con su múltiple y abrumadora oferta de consumo, es una tristeza individualista que brota del corazón cómodo y avaro, de la búsqueda enfermiza de placeres superficiales, de la conciencia aislada...*”

¿Qué hacer en este contexto y ante esta naturaleza nuestra tan débil? Jesús se conmueve y llora ante la muerte de su amigo Lázaro. Siente dolor ante la impotencia, el sufrimiento y la muerte de la humanidad que ama...

Todo se focaliza en estas dos afirmaciones centrales de Jesús: “*yo soy la resurrección y la vida*”, la segunda culmina la narración: “*Lázaro, ven afuera*”. No se trata sólo de hacer cosas nuevas o mejores, una nueva vida ética, no. Se trata de vivir un espíritu nuevo: Jesús proclama que él es la resurrección y la vida: “*el que cree en mí, aunque muera, vivirá, y el que está vivo y cree en mí, no morirá para siempre. ¿Crees esto?*”. Se trata por tanto, de fe, de confianza, de entrega a la misericordia de Dios. Por eso Pablo en la segunda lectura de hoy insiste en que “*el Espíritu del que resucitó a Jesús habita en vosotros*”.

Los que en nombre de toda la iglesia participamos en Caritas, en Pastoral de la Salud o en Pastoral Penitenciaria y en cualquier caso, todos los que vivimos la acción sociocaritativa de la Iglesia como algo nuestro, bien sabemos que más que guiados por esquemas ideológicos nos fortalecemos en la fe que actúa por el amor. El Papa Benedicto XVI en la encíclica *Deus Caritas Est* lo expresaba

muy acertadamente: “*los colaboradores de la acción caritativa de la Iglesia han de ser personas movidas ante todo por el amor de Cristo, personas cuyo corazón ha sido conquistado por Cristo con su amor, despertando en ellos el amor al prójimo*”. En este sentido, en el día de la campaña unitaria de nuestros servicios de pastoral social y caritativa, bajo el lema de “**contagia la esperanza**” puede ser hermoso, mostrar un corazón ardiente que busca que “*el amor se difunda en el mundo entero*”. Nuestra identidad está reflejada en una esperanza que “*sintonizando con otras organizaciones en el servicio a las diversas formas de necesidad... seguimos la fisonomía específica del servicio que Cristo pidió a sus discípulos. En el himno a la caridad (1 Cor 13), se nos enseña que ésta es siempre algo más que una simple actividad: ...si no tengo amor, de nada me sirve*”.

Nuestra esperanza se funda, no tanto, en lo que hacemos, sino en lo que somos: “*la actuación práctica resulta insuficiente si en ella no se puede percibir el amor por las personas*” Somos llamados a ser humildes en el servir, sin adoptar posiciones de superioridad ante el otro, el pobre, el enfermo, el preso... Se trata más bien de contagiar ternura, gracia, bendición... Somos instrumentos en manos del Señor.

Jesús llama a la liberación del pecado y de la muerte. Nos quiere libres del encierro y de la esclavitud de todas las mezquindades humanas, quiere que salgamos del sepulcro cerrado de la desesperación: “*Lázaro ven afuera*” Nos libra de la muerte, de la perdición. “*Desatadlo y dejadlo andar*”, son palabras dichas para romper todo lo que nos impide ser, palabras para confiar, para buscar, para trabajar y querer ser hombres y mujeres de esperanza misericordiosa. El Papa Francisco nos recuerda que “*hay que volver a la fuente y recuperar la frescura original del Evangelio, desde donde brotan nuevos caminos, métodos creativos, otras formas de expresión, signos elocuentes y palabras cargadas de renovado significado para el mundo actual*”.

San Pablo nos ha recordado en la lectura de hoy, en su carta a los romanos, que hay que vivir “*sujetos al Espíritu y no a la carne*”. Se trata de dos maneras de vivir. Vivir de una manera conformada a los valores del mundo desde una mentalidad al margen de Dios o vivir según el Espíritu, o sea, poner el corazón en lo que da vida y paz de modo pleno y eterno.

## **Oración de los fieles**

---

**Oremos a Cristo muerto y resucitado que nos invita a vivir en Espíritu y Verdad y nos alienta en nuestra esperanza de una vida más entrañable y misericordiosa.**

1. Por la Iglesia, pueblo de Dios: para que todos participemos del misterio de la fe desde una vida esperanza y amorosa y caminemos serenos en la alegría del Evangelio. *Roguemos al Señor*
2. Por tanto que lloran las muertes de sus familiares y amigos: para que encuentren paz y sosiego en la oración humilde y confiada ante Cristo muerto y resucitado. *Roguemos al Señor*.
3. Por tantos que padecen situaciones dolorosas de sufrimiento: para que encuentren en los colaboradores de la pastoral sociocaritativa de la Iglesia el apoyo que necesitan para vivir con dignidad. *Roguemos al Señor*.
4. Por los encargados de Caritas, Pastoral de la Salud y Pastoral Penitenciaria de nuestra Diócesis: para que sigan siendo fieles a su entrega y generosos en su servicio. *Roguemos al Señor*.
5. Por los que nos hemos reunido aquí en la celebración de la Eucaristía de hoy: que compartamos gozosos nuestra esperanza, vivamos felices en la fe y nos alegremos en el amor. *Roguemos al Señor*.

**Escúchanos Señor Jesús y ten piedad de nosotros y de toda la humanidad. Tú que vives y reinas por los siglos de los siglos. Amén.**

---

## **Al realizar la colecta**

---

El dinero que hoy recogemos se destinará para los servicios que a través de Caritas, Pastoral de la Salud y Pastoral Penitenciaria venimos realizando al servicio de las gentes más necesitadas entre los pobres de nuestra Diócesis.

## **Oración final**

---

Dios misericordioso, cuéntanos siempre entre los miembros de Jesucristo cuyo Cuerpo y Sangre hemos comulgado en este misterio de fe que es la Eucaristía. Por Jesucristo nuestro Señor.

## **BENDICIÓN**

---

Señor, bendice a tu pueblo santo que espera el don de la esperanza y concédele recibir de tu mano generosa lo que desea de corazón. Por Jesucristo nuestro Señor.

La bendición de Dios Padre, Hijo y Espíritu Santo descienda sobre vosotros.  
Podéis ir en paz.

# **GIDOI LITURGIKOA**

**SOZIO KARITATEZKO PASTORALTZAREN KANPAINA  
2014ko apirilaren 6an**

**GARIZUMAKO V. IGANDEA / A ZIKLOA  
Lazaroren igandea**

## **“SARRERAKO OHARRA”**

---

Aste Santuaren atarian gaude. Ebanjelioan, JesuKristo pizkundea eta bizitza dela entzungo dugu. Hori da gure behin betiko itxaropenaren iturria. Itxaropena erein nahi badugu, hainbeste jenderentzat hain zaila den mundu honi itxaropena kutsatu nahi badiogu, gure baitan daukagun onena eman behar dugu. Pertsona behartsuenei bizitza eskaintzen dietenen azken motibazioa da hori, pertsona horiek baitira gaizkien pasatzen ari direnak, eta Jainkoaren seme-alabak diren aldetik, haien duintasuna babestu behar baita. Hori da aurtengo kanpainaren helburua. Gaur, gure Elizak begi errukitsuz begiratzera animatzen gaitu, hainbatek eta hainbatek hainbesteren zerbitzura egiten duten lana gupidaz ikus dezagun. Eliza maitekorren baitan, gaixoei, espetxeratuei, pobreei eta edozein motatako biktimei entzun eta laguntzen diete, nork bere harri-koskorra ekarriz, etorkizuna zoriontsuagoa izan dadin.

Garizuman, betiko bizitzaraino jariatzen den uraren gisa ikusten dugu Jesus, munduko argiaren gisa, betiko bizitzaren gisa. Orain, Pazkoko urratsa egin nahi dugu, heriotzatik bizitzara, minetik bakera, etsipenetik itxaropenera igarotzeko. Igande honetako ospakizuna denontzat erronka eta poza izan bedi, bakearen eta poztasun ebanjelikoaren kantu bat.

## DAMU-OTOITZA

---

JesuKristoren gurutzea benetako itxaropeneko iturritzat hartua, haren aurrean, barkamena eskatzen dugu, haren Pazko errukitsutik urrundu garen aldiengatik. Horretarako, egin dezagun otoitz:

**Jainkoaren aurrean aitortzen dut...**

Eska diezaioogun laguntza seme-alabatzat maitatzen gaituen hari:  
**Erruki, Jauna / Kristo, erruki / Erruki, Jauna**

## OTOITZA

---

**Arren eskatzen dizugu, Aita, zure graziak bete eta indartu gaitzan, zure Semea munduaren askapen osoa lortzearren bere burua heriotzaraino ematera bultzatu zuen maitasun berean bizi gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez...**

---

**Irakurketak: 1. Ezekiel 37, 12-14 / Erromatarrei 8, 8-11 / Joan 11,1-48**

---

Gaurko irakurketetan, kontsolamendu-hitz ederrak entzun ditugu. Jainkoak hartu egiten gaitu, lagundi egiten digu, eta bere bizia ematen digu Jesu Kristoren bitartez, duintasunean bizi gaitezen eta neba-arreben gizarte bat eratzeko konpromisoa har dezagun, gugandik onena emateko gai izan gaitezen, eta ongia egiteko gure ahalmena parteka dezagun.

## SERMOIA

---

Gaurko giro liturgikoak hirugarren bataio-katekesia du oinarri (argia, ura, bizitza), Lazaroren piztueraren ebanjelioarekin, arreta JesuKristoren pizkundean jarrita daukagula. Itun Zaharreko lehen irakurketak itxaropen segurua iragartzen digu: Ezekiel profetak Babilonian erbesteratutako Israeldarrei hitz egiten die. Israeldarrak etsia hartuta daude, eta beste bizitza baten itxaropenaz mintzatzen zaie Ezekiel profeta. Jainkoak berak emango die bizitza hori, pizkundearen bitartez. Hurrengo kontakizun ebanjelikoa ekartzen du gogora: “*nik irekiko ditut zuen hilobiak, nik irtenaraziko zaituztet hilobitik... neure espiritua ezarriko dut zuengan, bizi zaitezten*”.

Gure gizatasuna heriotzaren mendean dago, eta horregatik, ahula da. Hain zuzen ere, gaurko ebanjelioko Lazaroren kontakizuna eta aurreko igandeetako samariarrarena eta jaiotzez itsua den pertsonarena gure gizatasun ahul horren adierazgarri ezin hobeak dira. Frantzisko Aita Santuak, *Evangelii Gaudium* burubidean, ahulezia hori gaur egungo egoera kulturaletan ere islatzen dela azaltzen digu: “*gaurko munduaren arrisku handia, kontsumorako eskaintza anitz eta ikaragarrizkoarekin, bihotz eroso eta zekenetik, azaleko gozamenen bilaketa gaixotitik, kontzientzia isolatutik sortzen den goibeltasun indibidualista da...*”

Zer egin dezakegu testuinguru horretan eta gure ahulezia handi honen aurrean? Jesus hunkitu egiten da Lazaro laguna hiltzen denean, eta negarrari ematen dio. Atsekabe handia sentitzen du maite duen gizatasunaren ezintasun, sufrimendu eta heriotzaren aurrean.

Hori guztia Jesusen bi baieztapen hauetan ardazten da: “*neu naiz piztuera eta bizia*”. Bigarrenak kontakizuna amaitzen du: “*Lazaro, zatoz kanpora*”. Kontua ez da gauza berriak edo hobeak egitea, beste bizitza etiko bat eratzea, ez. Beste espiritu bat bizitza da helburua: Jesusek adierazten du bera piztuera eta bizia dela: “*niregan sinesten duena, hilda ere, biziko da, eta bizi dena, niregan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hau?*”. Hortaz, fedeaz eta konfiantzaz ari gara, Jainkoaren errukiari lotzeaz. Hori dela eta, Paulok, gaurko bigarren irakurketan, hau azpimarratzen du: “*Jesus hildakoen artetik piztu zuenaren Espiritua zuengan dago*”.

Eliza osoaren izenean Caritasen, Osasun Pastoraltzan edo Espetxe Pastoraltzan parte hartzen dugunok eta, edozein kasutan, Elizaren gizarte- eta karitate-ekintza geure egiten dugunok ondo dakigu maitasunez jokatzen duen fedearen sendotzen garela, eskema ideologikoek ez gaituztela gidatzen. Benedikto XVI.a Aita Santuak oso zuzen adierazi zuen *Deus Caritas Est* entziklika: “*Elizan karitate-zerbitzuan dauden laguntzaileek, batez ere, Kristoren maitasunak eragindako pertsonak izan behar dute, Kristoren maitasunak bihotza ukitu dienak, beraiengan lagun hurkoaganako maitasuna piztuz*”. Ildo horretan, gizarte- eta karitate-pastoraltzako zerbitzuen baterako kanpainaren egunean, “**kutsatu itxaropena**” lelopean, ederra izan daiteke “*maitasuna mundu osoan zabaltzea*” nahi duen bihotz sutsua erakustea. Gure nortasuna itxaropen honetan islatzen da: “*hainbat eratako premietan laguntzen duten beste erakundeekin bat egitea... Kristok bere ikasleei eskatu zien zerbitzuaren izaera berezia errespetatuz. Karitateari egindako himnoan (1 Ko 13), irakasten zaigu hori beti dela ekintza soil bat baino zerbait gehiago: ...maitasunik ez badut, ez naiz ezer*”.

Gure itxaropenaren oinarria ez da egiten duguna, garena baizik: “*jokaera praktikoa ez da aski, hartan gizakiarenaganako maitasunik sumatzen ez bada*”. Zerbitzatzean apalak izan behar dugu, bestearen, txiroaren, gaixoaren edo presoaren aurrean nagusitasun-jarrerarik hartu gabe. Besteak beste, samurtasuna, grazia eta bedeinkazioa kutsatu behar ditugu. Tresnak baino ez gara Jaunaren eskuetan.

Jesusek bekatutik eta heriotzatik aska gaitezen deitzen digu. Giza doilorkeria guztien esklabotasunetik aske nahi gaitu, etsipenaren hilobi itxitik irten gaitezen nahi du: “*Lazaro, zatoz kanpora*”. Heriotzatik eta galbidetik askatzen gaitu. “*Aska ezazue, eta utzi joaten*” hitzak izatea galarazten diguna apurtzeko esan zituen Jesusek, itxaropen errukitsuko gizon-emakumeak izan gaitezen, horretan konfiantza izan dezagun, eta hori bilatu eta landu dezagun. Frantzisko Aita Santuak gogorarazten digunez, “*iturrira itzuli eta Ebanjelioaren jatorrizko freskura berreskuratu behar dugu. Han, bide berriak, metodo sortzaileak, adierazteko beste modu batzuk eta zeinu adierazgarriak aurkituko ditugu, eta gaur egungo munduan esanahi berria duten hitzak ere bai*”.

Gaurko irakurketan, San Paulok, erromatarrei idatzitako gutunean, espirituari lotuta bizi behar dugula gogorarazi digu, eta ez haragiari lotuta. Bizitzeko bi modu dira. Munduaren balioen arabera bizi gaitezke, Jainkoa alde batera utzita, edo Espirituaren arabera bizi gaitezke; alegría, bihotza bizia eta bakea osotasunez eta betikotasunez ematen duen horretan jarritz.

## **FEDEDUNEN OTOITZA**

---

**Otoitz egin diezaiogun Kristo hil eta piztuardi, Espirituan eta Egian bizi zera gonbidatzen gaituenari, eta bizi za maitekor eta errukitsuago baten itxaropena izateko adorea ematen dugunari.**

1. Elizaren alde, Jainkoaren herriaren alde: denok parte har dezagun fedearren misterioan, bizi za itxaropentsu eta maitekor batetik, eta lasai ibil gaitezen Ebanjelioaren poztasunean. *Eska diezaiogun Jaunari.*
2. Senideak eta lagunak deitoratzen dituztenen alde: bakea eta sosegua aurki ditzaten, Kristo hil eta piztuaren aurrean apal eta itxaropentsu otoitz eginez. *Eska diezaiogun Jaunari.*
3. Sufrimendu-egoera mingarriak jasaten ari direnen alde: Elizaren gizarte- eta karitate-pastoraltzako laguntzaileengan duntasunez bizi zeko laguntza aurki dezaten. *Eska diezaiogun Jaunari.*
4. Gure Elizbarrutiko Caritaseko, Osasun Pastoraltzako eta Espetxe Pastoraltzako arduradunen alde: gorputz eta arima aritzen eta eskuzabalak izaten jarrai dezaten. *Eska diezaiogun Jaunari.*
5. Gaurko Eukaristian batu garenon alde: gure itxaropena pozik elkarbanatu, fedeak zoriontsu bizi, eta maitasunean poztu gaitezen. *Eska diezaiogun Jaunari.*

**Entzun iezaguzu, Jesus Jauna, eta erruki zaitez gutaz eta gizadi guztiaz. Zu, errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.**

## **DIRU-BILKETA EGITEAN**

---

Gaur jasoko dugun dirua Caritas, Osasun Pastoraltza eta Espetxe Pastoraltzarentzat izango da, gure Elizbarrutiko txiroenen artean behartsuenak direnei zerbitzua ematen jarraitzeko.

## **AMAIERAKO OTOITZA**

---

Jainko errukitsua, izan gaitzazu beti JesuKristoren kideen artean, haren Gorputza eta Odola hartu baititugu Eukaristia den fede-misterio honetan. JesuKristo gure Jaunaren bitartez.

## **BEDEINKAPENA**

---

Jauna, bedeinka ezazu itxaropenaren dohainaren zain dagoen zure herri santua, eta emaiozu zure eskutik bihotzez nahi duena jasotzeko aukera. JesuKristo gure Jaunaren bitartez.

**Bedeinka zaitzatela Jaungoiko Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak.**

**Zoazte Jaunaren bakean.**